

«Au da nastea»!

Eguerdioste gozatsua. Gure Txomin buruastun dator bidean beera, txapelari batera ta bestera eragiñaz. Alako baten, bideko koxka baten estropezu eginda, jausi yako txapel ori lurrera. Ernegukeiñuak egiñaz, artu dau txapela eskuan eta urreratu yat etxaldera.

— Arratsaldeon, Kelmen jauna! Gero ta baldarrago goaz, antza.

— Bai, lagun zarra, giro ederra dakarzu, Jainkoa lagun. Alan be, arpegi illun-txoa dakarzu, Txomin.

— Bai, Kelmen jauna, arpegia illun eta barrua otz; arpegia, barrukoaren ixpillu besterik ez da. Olan ez goaz ondo.

— Joan, nora?

— Zorioneko bide barrietatik... Lengoan emen erabili genduzanak, zeatz nastau deuste burua. Lorik be ez dot gonoraz egin aste osoan.

— Ez goaz txarto, Txomin, erlijiño-kontu oneik logurea be kenduten badeutsue; kristiñau geienai kendu ez, emon egiten deutse.

— Logurea diño, Kelmen jauna? Zati bateko logureak kenduten ditu jentiak, «papelok» egin bearra datorrenean, nire Mendiburuko illobat lez.

— Orixe, «papelak» bete arte, Txomin. Andik aurrera, zer? Ez dozuz barriro eleiz-inguruan ikusiko, arik eta ume-txoren bat agertu arte. Era orduan beste arrapaladaxo bat. Orixe: «arrapaladako kristauak»!

— Bai, bai, ori be olan da, Kelmen jauna. Olan da, bai. Gure denporetan ez zan olangorik.

— Ene ba, Txomin, lekutako txarribuzkantzak dakaruz platerera! Orduan ez zan beste aukerarik be, gero! Arrezkero bide barri ta ezbaridiñik asko zabaldu da gure artean.

— «Sasoian sasoikoa» da esakerea, Txomin: bardin persona baten bizitzaldian eta bardin munduko historiako gizaldi bakoitzari dagokionez be.

— Egia esan, sasoiak ez dau parkatzen, Kelmen jauna, eta norbere sasoiak kanpo bizitzea be ez da egoki. Baiña «moderno» izan gurako asko dabil gure artean, bizar luzea, baiña zentzun laburra darabilen artaberde ugari...

— Or be zuzen zagoz, lagun. Eta eurok dirala ta, «artaberde» banaka orren erruz, ezin dozu artotza dana alde txarrera bota. Karrera aundiko izatea be ez da naiko, arazo onetan errazioa eukiteko; ortxe dozuz karrera oneko astoak be. Baiña karrera aundi ta guzti be, agoa zabaltzen daben bakoitzean, arrantza galantak botaten dakiemak!

— Tira, Kelmen jauna, goazen geure arira. Neure illoba bat ezkondu yatan oraintxe denpora gitxi. Eleiz-gauzak dirala ta, asarretu be egin giñan. Erriko abadeak ez eutsala «papelik» egin gura eta «zibillez» ezkondu bear ebala. Etxeko danok gogor be gogor artu genduan. eta egin bearrekoak eginda, eleizaz ezkondu zan.

— «Egin bearrekoak eginda», esan dozu, lagun? Baiña gauzak olan egin bearrekoak ziran? Gogoz kontrako sakramenturik artzea ondo deritxazu? Zer egin zala, uste dozu: eleizan, eleizaz ala elizatik ezkondu zala? Udaletxean egin bearrean, eleizan egin ta kito. Eleizatik, papel batzuk bete ta kito. Aurretik eleizaz ez dabillen gitxi eleizaz zaletuten da olako baten. «Kristau-papela» ala «Papel kristaua»? Ortxe dauka, ba, gaur Eleizeak buruauste ikaragarria: zer eta zelan egin, al dala, «papelezko» kristaurik izan ez daigun?

— Bai, Kelmen jauna, ori be olan da, baiña olan jokatu, laster eleizak utsik geratu bear. Esan be egiten dabe: abadeok zabizela eleizak utsituten.

— Olakorik entzuteko nengoan, Txomin. Dendari ederrak geu, geure dendak utsituten bagabiltz! Egin daigun, Txomin, zeu dendari bat zareala. Geienbaten bezeru banakatxo bat yatortzula. Baiña urtean bein edo, ikaragarrizko neke-izerdien puruz, salmenta eder bat prestetan dozula. Dendea plen plen egiten yatzula jendez, eta «kakaues» zorrotxo artuta, igesi doazela, eta kalean zear zuere dendearen aurka asmaualak esaten doazela. Zetarako dozu denda bete jende, zeu ago-bete agiñakaz eta denda-bete jenerogaz geratuteko?

— Alperrikoa da, gogoz kontra norbere jeneroa saltzen egotea... Eta zer egin? Dendea zarratu? Jeneroa aldatu? Dendari egokiagoak jirau?

— Baleiteke jeneroak eta dendariak be euren errua izatea. Baiña ez aztu Jesus gure Jauna dendari fiña izan zala, iñor izatekotan, eta saltzen eban jeneroa *be ezin ohea izan zala*. Alan ta guzti be, ondo dakizu zenbategaz geratu zan azkenean. Bera bota eben dendatik kanpora eta erri-baztarrean urkatu. Ai, Txomin, emen sakonago jo bear da, benetako sustraiak billatzeko. GAUR EGUN, pentsu klaserik asko dago milla askatan eskeinka. Ebanjelioko pentsuak zabalkunde gogorra dauka: «Nire atzetik etorri gura badozu, ukatu zeure bu-rua, artu eguneroko gurutzea eta jarraitu Neur!». Janari au ez da askorentzako, ikusten danez.

— Urrun joan gara, Kelmen jauna, baiña aska ta pentsu kontu onek asko argitu nau. Pentsu askotatik jan ondoren, eleiz-gauzak: sakramentu, Meza ta abar, astun geratzen dira? Eta ori dauan eskeinduta!

— Ori, ori, Txomin! Duan, txakur txiki bat ordaindu barik... Naizta ortik zear milla ogerleko eder alperrik galdu.

— Benetan, Kelmen jauna, gogo aundia bear da, olako denda baten arduradun izateko. Ez da arritzekoa gaur egun ain abadegai gitxi egotea.

— Naiko, Txomin, gaurko. Beste egun baten oratuko deutsogu arazo orreri.

— Ia, ba, Kelmen jauna, aspertu barik, argituaz bagoaz. Laster arte.

*BATEko eleiz-batzarra dala
eta besteko papela,
laster esnatzen da lo dagona
eta berotzen epela.*

*Or dago jenerua,
nun dago bezerua?
Bear dan lez datorrela...
Ez da iñoren probetxurako
or egiten dan pastela.*

A. MARTZEL, cp.